

TREBAKUNTZA 2021-11: IZENORDAIN ARRUNTAK ETA INDARTUAK

Batzuetan, zalantzak izaten ditugu izenordainekin, ez baitugu jakiten arruntak ala indartuak erabili. Mendebaldean ondo bereizten dituzten arren, beste toki batzuetan ez dituzte egoki erabiltzen. Euskaltzaindiak ez du araurik gai honi buruz, baina hona hemen argibide batzuk.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * Alkatea berandu heldu zen bilerara. **Gu** ere bai.
2. * **Neuk** uste dut maiatzerako aurreikusita genuen obra ez dela irailera arte hasiko.
3. * **Nik** esan behar al diot hori ez dela bere lana?
4. * **Niri pertsonalki** esan zidan dirulaguntza hori garaiz iritsiko zela.

AZALPENA

Pertsona-izenordain arruntak hauexek dira: *ni, hi, gu, zu* eta *zuek* (eta gaur egun baztertu samar dauden *berori* eta *beroriek*).

Pertsona-izenordain indartuak ere badira, euskalkien eta euskalki-aldaeren arabera aski ezberdinak. Hiru molde indartu hauek dira, esaterako, *ni* izenordain arruntaren ezagunenak: *neu, nihaur* eta *nerau*.

Ez dago oraingoz forma hobetsirik euskara baturako, nahiz *neu/geu* sistema dabilen nagusitzen.

Noiz erabili behar dira forma arruntak?

- Bokatiboetan: *Zu (*zeu), adiskide(a), zaude geldi!*
- Ezezko perpausetan: *Ez zaitez [zu/*zeu] gurekin sartu.*
- Zati-galderetan (hots, galdetzaile bidez eginiko galderetan): *Nor ote naiz ni (*neu)?* (salbuespena da galderazko perpausa *bai/ez* erakoa denean; orduan badu tokia: *Neuk esan behar al diot?*).

Noiz erabili behar dira forma indartuak? Euskaltzaindiak ez du araurik eman, eta, beraz, ez dago auzia estu hartzerik. Ekialdean, forma indartuak erabiltzeko ohitura ez dago hain errotua; mendebaldean, bai. Mendebaldeko ohituran, badirudi izenordain indartua erabiltzen dela izenordaina bera galdegai denean edo nolabaiteko kontraktasuna markatu nahi denean:

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uea.eu

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

*Neuk esan nion, ez bestek.
Ez ekarri besterik, geu aski gara.
Badirudi neure begietan daukadala oraintxe.*

Horrez gain, ERE partikularekin ere forma indartua erabiltzen da:

Geuk ere gauza bera egin dugu.

Dena dela, pertsona-izenordain indartuen erabileran entzuten dira esapide oker batzuk. Adibidez: **"Ni pertsonalki bat nator esan duzunarekin"**. Gaztelaniazko "yo personalmente" moldearen eraginez da hori. Argi dago euskaraz **"pertsonalki"** forma erdarakada dela. Alegia, ez dela esan behar "ni pertsonalki bat nator esan duzunarekin", edo "gu pertsonalki joango gara".

Horien ordeaz, esan dezagun "ni neu bat nator esan duzunarekin" edo "gu geu joango gara".

ZUZENKETAK

1. Alkatea berandu heldu zen bilerara. **Geu** ere bai.
2. **Nik** uste dut maiatzerako aurreikusita genuen obra ez dela irailera arte hasiko.
3. **Neuk** esan behar al diot hori ez dela bere lana?
4. **Neuri** esan zidan dirulaguntza hori garaiz iritsiko zela.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699